



beste barik, errealidadea eraldatzeko



Emon ahotsa inork entzuten ez dauanari. Giza Eskubideen alde jardun.

GOGOETA

Argitaratu zanetik hirurogeta bost urte igaro diranean, **Giza Eskubideen Adierazpen Unibersala**, egia ez ezik ametsa da oraindik. Aurrerapen batzuk izan diran arren, Giza Eskubideen bortxaketek gure mundu hau astintzen dihardue gaur egun be: bazterketa jasaten daben gerrako errefuxiatuak, euren ideiangaitik preso dagozan eta bidebako epaiketei aurre egin behar deuzen personak, torturak edo heriotza zigorra onartuta dagozan herrialdeak, tratu txarrak jasaten dabezan emakume eta umeak, e.a.

Gaur egun 150 herrialdetan dagoan **Amnistia Internacional** erakundea 1961ean sortu eban **Peter Benenson**ek. Britainiar abogadu honek, euren herrialdean askatasunaren alde topa egiteagaitik kartzelan sartu ebezan portugaldar ikasle batzuen kasua aintzat hartuta, "Ahaztutako presoak" artikulua argitaratu eban 1961.eko maiatzaren 28an. Idazkian, dei egiten eutsen mundu guztiko personei sei giltzaperatuen askatasuna lortzeko jardun eien. Berak, hain zuzen be, "kontzientzia presoak" deitu zituan, hau da, indarkeriarik ez erabili ez aldarrikatu ez daben eta ideia politiko, siniste erlijioso edo kontzientzia arrazoiengaitik preso dagozan personak.

Bere harridurarako, mila irakurle baino gehiagok parte hartu eban ekintza honetan. eharbada konturatu barik, Benensonek bidebakokeriaren aurka emaitza bikainak emongo ebazan aktibismo-mota bat itxuratu eban: **persona anonimoren ekintza** giza eskubideen bortxaketa jasandako **beste persona batzuen alde**.

Mundua aldatu daiteke, baina ez da bakarrik aldatuko.

ekintza

Badago giza eskubideek bortxatzen dabezanek kontuan hartzen ez daben zerbait: batzuetan, biktimak ez dagoz bakarrik. Milaka lagunek euren indarrak batzen dabez mundu osoan Giza Eskubideen errespetua eskatzeko: heriotza-zigorraren aurka burukatu, armen nazinoarteko merkataritza kontrolatu edo era guztietako bazterketa saihestu. Horreetako bat izan gura dozu?

-**Bialdu gutuna** Mexikoko presidenteari 2011ko otsailean torturak jasan ebazan Miriam López etxeoandra eta lau seme-alabaren amaren alde (eredutzat hartzeko gutuna eta kasuaren azalpena eskaintzen dira).

-**Abenduaren 10ean** Giza Eskubiden Nazinoarteko Eguna ospatzen da. Gogoratu egun hori eta arreta jarri zure herrian edo inguruko uriren batean antolatuko diran jardueretan.

-Bisitatu www.es.amnesty.org Amnistia Internacional erakundearen web orrialdea. Hortxe aurkituko dozu barri eta Giza Eskubideen alde **jarduteko bide** gehiago.